

# HERNANIKO VIII. TXISTULARI GAZTEEN TXAPELKETA

Hernani, 2012ko Martxoak 24

## ONARRIAK

- 1- Txapelketa honetan nahi duten txistulari bakarleri eta taldeek parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen badituzte:  
Bakarlariek:
  - 16 urte baino gehiago ez izatea txapelketa jokatzeko den egunean.
  - Txistua eta danbolina beste tresnarik ez erabiltzea, eta horiek biak nahitaez.
 Taldeek:
  - Pertsona berak ezin izango du talde bat baino gehiagotan parte hartu.
  - Taldea gutxienez 3 lagun eta gehienez ere 8 laguneko osatzea.
  - Partaideetako inork 16 urte baino gehiago ez izatea txapelketa jokatzeko den egunean.
  - Tresna hauek erabili ahal izango dira soilik: txistuak, silboteak, txilibituak, danbolinak, bonbeteak eta atabalak.
- 2- Txapelketa hiru kategoriatan banatuko da, orden honetan:
  - a) A kategoria: 12 urte edo gutxiagoko bakarlariek.
  - b) B kategoria: 13-16 urte bitarteko bakarlariek.
  - c) D kategoria: Taldeak.
- 3- Parte hartzen duen bakarleri edo talde bakoitzak obra edo doinu bat joko du, bakarlarientzat gehienez ere 5 minutuko iraupena izango duena eta taldeentzat (D kategoria) 8 minutukoa. Denbora hori gainditzea puntuazioaren kaltetan izango da.
- 4- Kategoria bakoitza fase bakarrean jokatu da: parte hartzaile bakoitzak aukeratu duen obra edo doinua behin joko du epai-mahaiaren aurrean eta horren arabera hartuko du honek erabakia. Nolanahi ere, epai-mahaiaren esku geratzen da oinarri hau aldatzeko aukera.
- 5- Txapelketa jokatzeko parte hartzaileek izango duten ordena zozketa publiko bidez erabakiko du epai-mahaiak txapelketaren egunean berean eta kategoriaz kategoria, txapelketa bera hasi baino lehen.
- 6- Parte hartzaileek izan dezaketen edozein zalantza, zozketaren aurretik azaldu beharko zaio epai-mahaiari, honek dagokien erantzuna emango dielarik.
- 7- Txapelketa Hernanin jokatu da, 2012ko martxoaren 24ean, larunbata, bi txandatan.
  - a) A eta B kategoriak: goizeko 11:30ean (zozketa 10:30ean)
  - b) D kategoria eta sari banaketa: arratsaldeko 17:00etan (zozketa 16:30ean)
 Orduetegiak jasan lezakeen zeinahi aldaketaren berri garaiz emango zaie izena emandakoei.

8- Sari hauek ezarri dira:

A kategoria:

- 1. saria: 150 euro, oroigarria eta txapela.
- 2. saria: 100 euro eta oroigarria.
- 3. saria: 50 euro eta oroigarria

B kategoria:

- 1. saria: 200 euro, oroigarria eta txapela.
- 2. saria: 150 euro eta oroigarria.
- 3. saria: 75 euro eta oroigarria.

D kategoria:

- 1. saria: 300 euro, oroigarria eta txapela.
- 2. saria: 200 euro eta oroigarria.
- 3. saria: 100 euro eta oroigarria.

9- Izena emateko, oinarri hauekin doan txartela bete eta helbide haue-tako batera igorri daiteke:

Ohiko posta:

Hernani Musika Eskola Publikoa. Txistulari Taldea

Atzieta 4, 20120 Hernani

Posta elektronikoa: i-eguren@hernani.net

Izen-emateko orriarekin datu hauek azaldu beharko dute:

- Taldearen izena (D kategorian bakarrik)

- Parte hartzaile guztien izena eta bi abizen, helbide osoa, jaiotze data eta telefono zenbakia.

- Joko duten obra edo doinuaren izenburua, iraupena eta egilearen izen-abizenak.

- Joko duten obra edo doinuaren 4 kopia. Hauek onartuak izateko argiak behar dute izan, irakurtzeko inongo zailtasunik ez dutenak eta, nahitaez, joko diren tresna guztien papera biltzen dutenak, egingo den musikaren adierazpen guztiekin. Danbolina ere tresna bat da.

10- Izen-emateko epea oinarri hauek argitaratzen diren unetik dago zabalik eta 2012ko Martxoaren 14ean amaitzen da.

11- Epai-mahai gai honetan adituak diren espezialistek eratu dute. Epairako, bost irizpide hauek erabiliko dituzte: doitasunez jotzea, adierazpen edo interpretazioa, soinuaren kalitatea, doinuaren zailtasuna eta jolearen jarrera. Taldeei berriz beste bi irizpide hauek erantsiko zaizkie: talde lana eta taldearen egitura.

12- Epai-mahaiaren esku dago oinarri hauen interpretazioan sor litekeen edozein zalantza argitzea eta ongi arrazoituta aldaketak garaiz ezartzea komenigarri baderitzo, beti ere parte-hartzaile guztiei horren berri emanaz.

13- Epai-mahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

14- Txapelketa honen hots, irudi edo bestelako grabazioak antolatzaileen esku egongo dira, eta ondoren publikoak kontsultagarri izango ditu Euskal Herriko Txistulari Elkartearen eta Herri Musikaren Txokoan.

15- Txapelketa honetan parte hartzeak oinarri hauek ontzat hartzea suposatzen du.

## OBRA

Izenburua / Título:

Egilea / Autor:

Iraupena / Duración:

## A eta B kategoriak

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:

Helbidea / Dirección:

Jaiotze data / Fecha de nacimiento:

Telefonoa:

e-mail:

Herria / Localidad:

## D kategoria

Talderaen izena / Nombre del grupo:

Helbidea / Dirección:

e-mail:

Herria / Localidad:

	Izen-abizenak	Jaiotze data	Telefonoa
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			